

Xedapen Orokorrak

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

822

EDIKTUA, urtarrilaren 29ko 19/2008 Dekretuaren aurkako 981/08 administrazioarekiko Auzi-errekurtsoaren ondoriozkoa. Errekurtso horretan, 2009ko apirilaren 1eko Epaia eman zen, zeina irmo bihurtu baita, izan ere, Auzitegi Nagusian deklaratu baitu ezen, aipatu epaiaren aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa hutsala dela; eta epai horretako epaitzan, erabaki da errekurritutako dekretua zuzenbidez ezdeusa dela.

Honakoa jakinarazten da: Estatuaren Administrazioak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren urtarrilaren 29ko 19/2008 Dekretuaren aurka sustatutako administrazioarekiko auzietako 981/08 Errekurtsoan –2009-04-01ean– epaia eman dela. Dekretu horren bitartez honako arautegia onartzen da: Meategi harrobi eta tuneletan laneko arriskuei aurre egiteari dagokionez arau-hauste larriak eta oso larriak egiteagatik zehapenak ezartzeko prozedurari buruzkoa. Eta epai hori irmo bihurtu da, hain justu ere bere aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa hutsala dela erabaki baitu Auzitegi Nagusiak. Delako epairen epaitzan honakoa erabaki da:

Errekurritutako dekretua zuzenbidez ezdeusa dela deklaratzeko.

Eta denek jakin dezaten ematen da esandakoaren berri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen (AAJL) 107. artikuluan xedatutakoa betez.

Bilbao, 2009ko abenduaren 10a.

IDAZKARI JUDIZIALA.

Disposiciones Generales

TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO

822

EDICTO dimanante de recurso contencioso-administrativo n.º 981/08 contra el Decreto 19/2008, de 29 de enero, en el que se ha dictado sentencia el 1 de abril de 2009 que ha alcanzado el carácter de firme al haber sido declarado por el Tribunal Supremo desierto el recurso de casación interpuesto contra la referida sentencia, en cuyo fallo se ha acordado declarar la nulidad de pleno derecho del Decreto recurrido.

Se hace saber que en el recurso contencioso-administrativo número 981/08 promovido por la Administración del Estado contra el Decreto 19/2008, de 29 de enero, del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, por el que se aprueba el Reglamento del procedimiento para la imposición de sanciones por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de minas, canteras y túneles, se ha dictado sentencia el 01-04-2009 que ha alcanzado el carácter de firme al haber sido declarado por el Tribunal Supremo desierto el recurso de casación interpuesto contra la referida sentencia, en cuyo fallo se ha acordado:

Declarar la nulidad de pleno derecho del Decreto recurrido.

Lo que en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 107 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (LJCA), se hace público para general conocimiento.

En Bilbao, a 10 de diciembre de 2009.

EL/LA SECRETARIO JUDICIAL.